

1662/2025 EBAZPENA, abuztuaren 25ekoa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, honako ebazpen hau aldatzeko dena: 1630/2025 Ebazpena, abuztuaren 19koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Ospitaleko Larrialdien Zerbitzuko atal sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen abuztuaren 19ko 1630/2025 Ebazpenaren bidez, izendatu zen Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Ospitaleko Larrialdien Zerbitzuko atal sanitarioko burua hautatzeko Balorazio Batzordea.

Osakidetzako Webgunean ebazpena argitaratuta eta Balorazio Batzordeko kideei jakinarazi ondoren, akats bat . antzeman da, Pedro MORRONDO VALDEOLMILLOS jauna ordezkotako presidente izendatu baita.

2025eko abuztuaren 25eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren, honako hau jakinarazten da: 1317/2025 Ebazpena, uztailaren 30ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Pedro Morrondo Valdeolmillos jaunak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko izateari utzi diola deklaratzeko duena. Kargu-uzte horrek 2025eko abuztuaren 3ko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak. Beraz, Balorazio Batzordea aldatu egin behar da, zentzu horretan.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Aldatzea, erantsitako eranskinaren arabera, 1630/2025 Ebazpenaren II. eranskina (1630/2025 Ebazpena, abuztuaren 19koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzuko atal sanitarioko burua hautatzeko Balorazio Batzordea izendatzen duena), honela:

- a) Pedro MORRONDO VALDEOLMILLOS jaunaren, batzordeburu ordezkotako gisa, ezeztatzea.
- b) Alejandra GIL MOLET andrea batzordeburu ordezkotako izendatzea.

Bigarrena.- Ebazpen honek ondorioak izango ditu onartzen den egun beretik.



Hirugarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea eta argitaratzea Osakidetzaren Web orrialdean.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abuztuaren 25a.

ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA



KUDEAKETAKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN GERENCIA

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentea,

ENRIQUE MANUEL BÁREZ HERNÁNDEZ.



II. ERANSKINA

ARABAKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO OSPITALEKO LARRIALDIEN
ZERBITZUKO ATAL SANITARIOKO BURU IZENENKO LANPOSTUA.

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua:

Titularra: Juan José TIMIRAOS FERNÁNDEZ jn.

Ordezkoa: Alejandra GIL MOLET and.

Lehenengo batzordekidea:

Titularra: Itziar NEVE LETE and.

Ordezkoa: María Esther CUESTA GARCÍA and.

Bigarren batzordekidea:

Titularra: Miren Amaia RUIZ ECHEBARRIA and.

Ordezkoa: Mercedes VARONA PEINADOR and.

Hirugarren batzordekidea:

Titularra: José Luis BLÁZQUEZ DÍEZ jn.

Ordezkoa: Pedro María GARCÍA PEÑA jn.

Laugarren batzordekidea:

Titularra: Juan Ignacio LARRUSCAIN ZORROZA jn.

Ordezkoa: José Ignacio PÉREZ FERREIRO jn.

Idazkaria:

Titularra: María Rosario MARTÍN ROMÁN and.

Ordezkoa: María Pilar SÁNCHEZ GARDUÑO and.